

Auzoz Auzo

Altza

Larraitz Garmendia (fnoa.: 391267)

martxoak emakumearekin lotutako gaiak ekarriko ditu auzora. Aste batzuk barru, Emakumearen Astea egingo da.

Hilaren 26an hitzaldi berezia izango da Kasares kultur etxean. Bertan Txaro Arteaga Emakundeko zuzendariak, Arantza Ugalde abokatuak eta Kristina Zorita kazetariak parte hartuko dute. Gaia emakumeen eta haurren kontrako tratatu txarraz izango da.

Txaro Arteagak familiar-tean egiten diren tratatu txarraz aztertu eta arazo honen

Altzako emakumeak euren burua hezitzen eta gizarteratzen saiatzen dira


aurrean erakundeek eskaintzen dituzten zerbitzuak ezagutaraziko ditu. Besteak beste, aurreikuspen eta laguntza zerbitzuez hitz egingo du.

Arantza Ugaldek legearen ikuspuntua ekarriko du mahai gainera. Hau da, persona batek tratatu txarren bat jasaten duenean, zein pauso eman, nora jo eta norekin hitz egin behar duen.

Azkenik, Kristina Zorita kazetariak komunikabideek gai honi ematen dioten tratamendua aztertuko du; zergatik kasu hauei ez zitzaizkien lehen inolako garrantzirik ematen eta orain denon ahotan dauden, esaterako.

Gai hauez gain, Altzan emakumeek bizi duten egoera ere ezagutzeko parada izango da hitzaldi honetan. Datu adierazgarri bezala esan daiteke gure auzoan emakume talde ugari aritzen direla

Emakumeen kontrako tratatu txarraz aztergai



Datorren hilaren 26ean Txaro Arteaga Emakundeko zuzendariak tratatu txarrei buruzko hitzaldia eskainiko du.

urtean zehar lanean. Talde hauek, emakumearen gaia ezezik, ikastaroak, ikasketak

eta kulturarekin lotura duten ekimenak antolatzen dituzte. Honek esan nahi du Altzako emakume asko eta asko ez direla etxeaz bakarrik arduratzen, baizik eta beren egoera hobetzeko tartera ere badutela. Azken finean, Altzako emakumeak antolatuta daude eta, horrez gain, euren burua hezitzen eta gizarteratzen saiatzen dira.

Armazoaia + Lente progresiboak



IKUSI ETA
SINETSIKO
DUZU

21.750
pezeta

CADENA
FEDEROPTICOS

Federopticos LEGARDA

Matia 25 • DONOSTIA
Tfnoa.: 21.09.97

Federopticos IDIAKEZ

Idiakez 3 • DONOSTIA
Tfnoa.: 42.46.08

Federopticos OARSO

Vicente Elizegi 9 • ORERETA
Tfnoa.: 51.67.99

Federopticos IGMAR

Julian etxeberría 2 • EIBAR
Tfnoa.: 20.26.99

taberna jatetxea

TXISKUENE



- Eguneko menuak
- Afariak
- Ospakizunak

Begiristain pasealekua 85
(Hospitaletoako bidea) • Tfnoa.: 45.09.87